

EKONOMIAREN TALAIAN

Eskuineko eta ezkerreko politikak



JUAN MARI ARREGI

ñigo Urkullu jarduneko lehendakariak eta bere alderdiak hauteskunde kanpainan esan dutenez, “ezkerrekoak eta eskuinekoak jada ez dira existitzen”. Gaur egun EAEn nagusi den politikaren alternatibarik existituko ez balitz bezala, hau da, ez balego bezala eskuinekoak izanik egungo sistema kapitalistari eusten dion alderdiaren ordezkorik.

Arlo ekonomikoan ikusten dira argiago eskuineko eta ezkerreko politiken ondorioak. Adibide komun batzuk jartzearen, eskuineko zein ezkerreko talde politikoek eskaintakoaren artean, osasungintzari, zerga erreformari eta pentsioei erreparatuko diegu.

Osasungintza hobetzea zertan datza? Zerbitzuak pribatizatzea? Zaharren egoitzak boterean dagoen alderdiaren lagun diren enpresa pribatuen edo funts putreen esku uztea? Edo sare publikoan in-

tegratzea? Osasun zerbitzuak –oinarrizko arreta barne– nola hobetu daitezke, enplegu prekarioarekin edo finkoarekin? Urkulluk osasunaren arloan agindutako 4.000 lanpostuak nolakoak izango ote dira? Administrazio publikoan bezalakoak? Egiturazko milaka lanpostu daude sektore horretan, baina aldi baterakoak dira eta erretiroa hartu arte urteak irauten dituzte.

Bestalde, erreforma fiskala nola egin? Zergak jaitsiz? Edo gehien dutenei –hots, aberatsei, enpresei eta multinazionalerik? Eta pentsioak nola bermatu? Publikoak direnak gutxieneko duinarekin indartuz, edo aseguru pribatuen alde eginez?

Hauteskunde ondoan ezarriko diren politikekin ikusiko dugu hori guztia... Bai eskuinetik kapitalaren zerbitzura ezarriko diren politikekin, baita ezker alternatibotik horiei erantzun eta aldarazteko izango den gaitasunarekin. Izan ere, gezurra da eskuindarrak eta ezkertiarrik ez dagoela dioen tesi hori. Bai, jakina badaudela eskuineko eta ezkerreko politikak. Galde diezaietela zaharrei, langabeei, gazteei edo emakumei. ●

GALIZIA



LA REGION

GALIZIAN FEIJOOK DIRAU JABE,
ETA BNG DA OPOSIZIO BURU

Galizia PP eskuindarrari kenduko dionik ez da sortu, oraindik bederen. Alberto Núñez Feijóo presidentea lortu du berriro gehiengo absolutuz irabaztea hauteskundeak, 42 aulki eskuratuz parlamentuan. Aldatuko dena ez da presidentea, oposizioko burua baizik: PSOE-ren Galiziako adarrari alternatibaren irudia izatearen nagusitasuna kendu dio BNG alderdi abertzale ezkertiarrik. Galiziako legebiltzarretik kanpo geratu dira bai Galicia en Comun eta bai Marea Galegusta ezkerretik eta bai Vox eta Ciudadanos eskuinetik.



BOTO AKTIBOA BEZAIN GARRANTZITSUA ZEN VOX-I KALEAN ERANTZUTEA. OSO GUTXIGATIK EZ DA ERABATEKOA IZAN HAIEN UMILIAZIOA

@InzaXabier



EMAITZA TXARRAK DIRA ERRENTERIA EDOTA DURANGO EREDU DUGUNONTZAT. ANGUITAREN HURA MANTRATIK SUPERNIRA PASA BEHAR DUGU: PROGRAMA, PROGRAMA, PROGRAMA. IA BEHINGOZ EHBK ETA EPDMSEK OPOSIZIOA EGITEN DUTEN, EZ MORALA ETA ORATORIAZKOA, PROIEKTUZKOA BAIZIK

@hedoi_etxarte



ESKUBIDE BILAKATU BEHAR DUGU 16 URTETIK AUERRERA BOZKATU AHAL IZATEA. ESTRATATEGIKOA DA GAINERA. GERO ETA EDADETUAGOA GIZARTEA, ORDUAN ETA BOZKA KONTSERBADOREAGOA

@JuleGoi



VOX ARABATIK SARTU DELAKO SUTAN DAUDE SARE SOZIALAK. BAINA EZKER ARABARRAREN IGOERAK ASKOZ GEHIAGO DIO. ULTRAESKUIAREN SARRERA KOIUNTURALA IZAN DAITEKE, EH BILDURENAK EGITURAZKOA IZATEKO ITXURA DU

@Zuriro